

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3687

EBAZPENA, 2021eko ekainaren 14koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Zarauzko (Gipuzkoa) ECAYA eskola-udalekuak (Ebro Etxea) babes ertaineko kultura-ondasun deklaratzeko espedienteari, monumentuaren kategorian. Era berean, espediente hori jendaurrean eta interesdunen entzunaldipean jartzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoak kultura-ondarearen arloko eskumen osoa bereganatu zuen, Konstituzioaren 148.1.16 artikulua babespian eta Autonomia Estatutuaren 10.19 artikulua kontuan hartuta. Onartutako eskumenaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea onartu zen. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-intereseko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen ditu.

Zarauzko (Gipuzkoa) ECAYA eskola-udalekuek (Ebro Etxea) historiaren eta kulturaren aldetik duten interesa ikusita, eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek aurkeztutako ebazpen-proposamena aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Zarauzko (Gipuzkoa) ECAYA eskola-udalekuak (Ebro Etxea), monumentuaren kategorian, babes ertaineko kultura-ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera ematea, ebazpen honen I. eranskinean finkatutako mugaketa, II. eranskineko deskribapena eta III. eranskinean jasotako babes-araubide partikularra aintzat harturik.

Babes-espediente hau abiarazita, Zarauzko (Gipuzkoa) ECAYA eskola-udalekuei (Ebro Etxea) babes-araubide partikularra berehala eta behin-behinean aplikatuko zaie, baita Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean babes ertaineko ondasunetarako aurreikusitako babes-araubide orokorra eta espezifikoa ere.

Bigarrena.– Zarauzko (Gipuzkoa) ECAYA eskola-udalekuak (Ebro Etxea), monumentuaren kategorian, babes ertaineko kultura-ondasun deklaratzeko hasitako espedientea jendaurrean jartzeko aldiari hasiera ematea, I. eranskinean agertzen den mugaketan oinarrituz, II. eranskineko deskribapena kontuan hartuz eta babes-araubide partikular gisa III. eranskinean agertzen dena ezarrita. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 20 eguneko epea egongo da alegazioak egin eta egokitze jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. eta 83. artikuluetan jasotzen denari jarraikiz. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Zarauzko Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola eta Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketaarako departamentuei jakinaraztea prozedura hau hasteak eten egiten dituela eremu babestuetan partzelatzeko, eraikitze edo eraisteko lizentziak, baita lehendik emandako lizentzien ondorioak ere, babes-araubide partikularrean ezarritakoaren arabera. Finkan ezinbestean obraren bat egin beharko balitz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bai- mena eskuratu beharko litzateke derrigorrean.

2021eko ekainaren 28a, astelehena

Laugarrena.– Espedientea izapidetzen jarraitzea indarrean diren xedapenen arabera.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea Zarauzko Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola eta Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketarako departamentuei, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eta Irune Gutierrez Larrañaga andreari.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jendeak haren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 14a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA

MUGAKETA

Zarauzko ECAYA eskola-udalekuen monumentuaren mugaketak honakoak hartzen ditu: alde batetik, eraikina bera; eta, bestetik, babes-ingurune bat, Zumalakarregi kaleko 16. zenbakiko hiri-partzelaren mugarekin bat datorrena.

Aurreikusitako mugaketak zehazten du zer babes-eremu behar den multzoaren balio historiko, tipologiko, konpositibo-formal, espazio-funtzional, urbanistiko eta ingurumenekoak babesteko, eta babestutako kultura-ondasuna osatzen duten elementu guztiak behar bezala kontserbatzeko eta balioa emateko.



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO
 DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
 Euzko Jaurlaritzaren Kulturaren Departamentua

GIPUZKOA
 ZARAUTZ

Lurmuina / Termino: 04/05/2021
 Eskala / Escala: 1:500

Planoa / Plano:
DELIMITACIÓN DEL MONUMENTO COLONIAS ESCOLARES E.C.A.Y.A. E.C.A.Y.A. ESCOLA-UDALEKUEN MONUMENTUAREN MUGAKETA

Eskala / Escala:
 0 10 20 m.

II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

Ebro Compañía de azúcares y alcoholes S.A. (ECAYA) enpresa Zaragozan eratu zen 1911n, Azucarera del Ebro S.A. izenarekin, erremolatxa-azukrea eta deribatuak fabrikatzeko asmoz. 1928an, Compañía de Alcoholes S.A. de Bilbao enpresarekin bat egin zuen. Hain zuzen ere, Bilboko enpresa hori Lamiakon hasi zen lanean mende hasieran, «La Camera» xaboi-fabrikaren lehengo instalazioetan. Hurrengo urtean, azukre-fabrikak ECAYA izena hartu zuen, eta gauza gehiago ekoizten eta merkaturatzen hasi zen: mota guztietako azukreak, lehengaiak eta deribatuak. Egoitza soziala Donostiara eraman zuten, eta bulego nagusiak, berriz, Madrilen jarri zituzten.

ECAYAK, bere langileen seme-alabek udaz goza zezaten, udalekuak sustatu zituen Zarautzen, XX. mendeko 30eko hamarkadaren amaieran. Eskola-udalekuen fenomenoaren jatorria XIX. mendearen azken laurdenean kokatu daiteke; zehazki, 1876an, Walter Bion artzain ebanjelista suitzarrak 14 eguneko egonaldia antolatu zuenean lehen aldiz mendialdean, Zuricheko eskoletako 68 ume txirorentzat. Beraz, ECAYAREN udalekuak fenomeno horren agerpen berantiarra izan ziren. Esperientzia hori ez zen guztiz originala; izan ere, lehendik ere bazegoen tradizio pedagogiko garrantzitsu bat, zeinaren bitartez naturaren, aire librearen, ariketa fisikoaren edo behaketa zein intuizio bidezko ikasketaren balio hezitzaileak defendatzen baitziren. Zenbait urte igaro ostean udarako egoitza gisa diseinatua izan ez zen eraikin batean, 1940an, eraikin berri baten proiektua egiteko eskatu zitzaion Lucas Aldayri, zeina arkitekto nabarmena baitzen, ibilbide oparoa egin zuena mendeko lehen hamarkadetan Donostian. Gauzak horrela, gaur egun ikusgai dugun Ebro Etxea 1942ko abuztuaren 1ean inauguratu zen, txanda bakoitzeko 96 eskola-umerentzako lekuarekin.

Eraikinak T formako oinplano-bolumen trinkoa du. Sotoko solairua dauka, bi altuera alboetako gorputzetan, eta 3 solairu, berriz, erdiko gorputzean. Alboetako hegaletan, 3 aldeko isurialde inklinatuak daude estalki gisa; eta 4 isurkikoak, berriz, erdiko bolumenean, teila zeramiko kurbatuko akaberarekin. Barne-egiturari dagokionez, hormigoï armatuko arkupedun sistema ortogonal dauka, hegikako habeeekin eta lauzekin forjaketetan, eskaileretan eta estalkietan. Apaindura gutxiko fatxadak ditu, kanpoaldean krema-kolorez zarpiatutako adreiluz egindakoak, non ardatz bertikalean ordenatutako bao zuzenak irekitzen baitira, pixka bat proportzio bertikalean, salbu eta atikoaren solairuan eta erdiko gorputzaren hegoaldeko aldean: bi gune horietan, baoak handitu egiten dira, forma etzana hartu arte. Zurgin-lanak egurrezkoak dira, eta kontraleiho tolesgarriak ditu kanpoaldean, nahiz eta ez duten beiren jatorrizko zatikatzerik mantentzen. Erdisotoko solairuak ere argiztapen eta aireztapen naturalak ditu, irekidura angeluzuzen txiki batzuei esker.

Altxaeren konposizio soilaren ezaugarria hormigoizko plaka lisoen lerroen horizontaltasuna da, inpostek, leiho-barren jarraituek eta erlaitzek bata bestearen atzetik trazatzen dutena eraikinaren perimetro osoan zehar. Eraikinak dauzkan apaindura urriak erdiko ardatzean daude pilatuta, fatxada nagusian: arkupe bat dago han, eskalinatarekin eta kapitela lisoko zutabe bikoitzarekin, sarrera nagusia zein den adieraziz; horren gainean, berriz, balastradadun balkoi bat dago. Lehen solairuko balkoi-baoa da arku beheratua daukan bakarra; erliebez egindako landare-irudiekin dago dekoratuta, eta ECAYA (enpresaren akronimoa) dioen armari bat du gainean. Bereziki nabarmentzen dira goiko solairuetako angeluetako estalkietan ikus daitezkeen «garitoi» erako eranskin zilindrikoak, euskal dorretxeen estiloa gogorarazten duten elementuen antzera. Elementu horien inspirazioak aitortza egiten dio jatorrizko proiektuaren memoriari.

Barrualdearen banaketari dagokionez, erdiko gorputza hiru hormartetan dago banatuta, eta, erdikoan, hiru tarteko eskailera nagusia dago, 4 solairuak lotzen dituena eta, era berean, goial-

dean argi-zuloa duen patio estali batera ere ematen duena. Lotura-guneek ere hortik hartzen dute argia. Jatorriz, bigarren mailako eskailera bat eta karga-jasogailu bat ere bazeuden sotoko solairuaren eta beheko solairuaren artean, sukaldea eta jantokia lotzeko. Espazio horren gainean, solairu nagusian, patioaren zorua zegoen. Alabaina, 90eko hamarkadan igogailua jarri zenean, patioa beheko solairuraino luzatu zen, eta han, era berean, pasagune bat jarri zen, gaur egun eskailera nagusiaren azken tartea eta atikoko terraza lotzen dituen.

Lotura bertikal horien inguruan, solairu guztietako alboetako hormarteetan, modu simetrikoan ezarri ziren banalekuak, higie-nezerbitzuak eta beste areto osagarri batzuk; esate baterako, sendaketa-gelak eta bulegoak. Sotoan, biltegiek, despentsek, garbitokiak eta lehortegiak okupatzen dute espazio hori. Atikoan, ziurrenik udalekuetako zuzendaritzaren erabilera eksklusiborako, bulego handi bat dago, bai eta etxebizitza bat ere, sarrera zuzena daukana hegoaldera ematen duen terrazara. Erdiko gorputz hori atzealdeko fatxadarantz luzatzen da sotoko solairuan, beheko solairuan eta lehen solairuan, eta espazio garbi bat dauka, non kokatzen baitziren, hurrenez hurren, sukaldea, jantokia eta erizaindegia. Alboetako hegalei dagokienez, bakoitzak 5 hormarte dauzka, eta banatu gabeko espazio garbi zabalak osatzen dituzte. Hantxe zeuden logela komunitarioak, sexuaren arabera banatuta.

Deskribatutako sarrera nagusiaz gain, sotoko solairuak bi sarrera independente dauzka lorategitik. Sarrera horietako bakoitzak eskailera bat du, beharbada biak ere gerora jarritakoak. Kanpoaldean, partzelak muga egiten du, iparraldean, balaustradadun hormigoizko horma batekin. Horma horrek egurrezko ateak ditu oinezkoentzako eta ibilgailuentzako sarrera gisa, eta harrizko eta hormigoizko hormak dauzka gainerako orientazioetan. Partzelaren hego-ekialdeko eta hego-mendebaldeko ertzetan, arkupeko zutabeen erreplika diren bi pergola daude. Kanpoan dauden gune estali horiek lorategiaz gozatzeko egin baziren ere, orain galdu egin dute ezaugarri hori, itxi egin baitituzte hormigoizko blokeekin. Eraikina inguratzen duen partzelako gainerako espazio librea, hegoalderantz azalera handiagoa duena, landaretza ugariko lorategi batek hartzen du. Lorategiak ibilbide perimetrala dauka, bai eta zintarriz mugatutako parterre berdeak eta hormigoizko jardineria aurrefabrikatuak ere.

Udalaren jabetzakoa denetik, eraikinean zenbait konponketa txiki egin izan dira. Hala ere, higiezinak kontserbazio-arazo batzuk dauzka, batez ere hormigoizko egiturari eragiten diotenak eta, neurri txikiagoan, fatxadako estaldurei eta arotzeriei.

III. ERANSKINA

BABES-ARAUBIDE PARTIKULARRA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Babes-neurriei buruzko eranskin honek osatu egiten du Zarauzko ECAYA eskola-udalekuak, monumentu kategoriarekin, babes ertaineko kultura-ondasun izendatzeko deklarazioa, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 16. artikulua betez. Era berean, ondasun horretan onartuta eta debekatuta dauden jarduerak zehazten dira.

2. artikulua.– Izaera loteslea.

1.– Eranskin honetako aginduak lotesleak dira, eta bertan aurreikusitako babes-neurrien arabera kontserbatu beharko da kultura-ondasuna.

2.– Hirigintza-, lurralde- eta ingurumen-antolamenduko tresnek beren baitan jaso beharko dituzte kultura-ondasun babestuaren babesa eta kontserbazioa bermatzeko behar diren zehaztapenak. Horretarako, Eusko Jauriaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailaren aldeko txostena izan beharko dute, 6/2019 Legearen 47. artikuluekin bat etorritz.

3. artikulua.– Babesaren xede diren ondasun eta balio kulturalak.

1.– Honako hauek dira babesaren xede den kultura-ondasuna osatzen duten elementuak: ECAYA eskola-udalekuen higiezina (Ebro Etxea ere esaten zaio), bai eta espazio libreak eta I. eranskinetako mugaketan sartutako gainerako elementuak ere.

2.– Kultura-ondasunaren deklarazio hau eragin duen ondare-balorazioaren arabera, ECAYA eskola-udalekuak ondasun garrantzitsua dira EAEko kultura-ondarean, eta balio kultural hauek dituzte:

– Balio historikoa: 40ko hamarkadan eraikitako Ebro Etxeak ECAYA enpresaren historia irudikatzen du. Enpresa hori izan zen eraikinaren sustatzailea, bai eta eskola-udalekuen fenomenoarena ere. Hain zuzen ere, fenomeno hori XX. mendearen hasieratik hasi zen Europan barrena hedatzen, eta 30eko hamarkadaren inguruan izan zuen unerik gorena Espainian eta Euskal Herrian.

– Balio soziala: korrante pedagogiko berrien lekuko gisa (zeintzuen bitartez naturaren, aire librearen, ariketa fisikoaren edo behaketa eta intuizio bidezko ikasketaren balio hezitzaileen alde egiten baitzen) eta turismoaren bilakaeraren lekuko gisa (hasieran aristokraten eta dirudunen pribilegio eksklusiboa zen, eta gero herri-mailako klaseetara ere heldu zen).

– Proiektuaren eta eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa: euskal estilo berriaren adibide egokia, Lucas Alday arkitekto ospetsuak proiektatua eta maisutasunez eraikia.

– Balio tipologikoa: eskola-udalekuetarako egoitzaren adibidea, espazioak antolatzeke arrazionalismoan oinarritutakoa, eta, konfigurazio arkitektonikoari dagokionez, erregionalismoaren arabera eraikitakoa, eskola publikoak eraikitzeke jarraibideekin bat etorritz eta garaiko korrante estilistikoak betez.

– Berezitasunaren balioa: hurrei zuzendutako itsasaldeko udalekuen euskal ereduaren adibide bakanetako bat da, eta, gainera, berezitasun gisa, enpresa industrial batek sustatu zuen, enpresa horretako langileen seme-alabek erabil zezaten.

– Balio konpositibo-formala: fatxaden konposizio soil eta, aldi berean, solemnea. Horretarako, atal trinkoen eta baoen arteko proportzio orekatua erabili zen, eta elementu horiek modu ordenatuan antolatu ziren. Gainera, apaindura sinpleak erabili ziren, hala nola, plaka lisoko lerro horizontalak edo garitoiak, euskal dorretxeen estiloa gogorarazten dutenak (hain zuzen ere, euskal dorretxeetan inspiratuta diseinatu zen eraikina).

– Egituraren balioa: hormigoi armatuzko egitura-sistemaren elementu guztiak kontserbatzen dira. Modu horretan, dokumentatuta geratzen da material hori XX. mendearen lehen erdialdean agertu eta erabili zela Euskal Herrian, eta, era berean, agerian geratzen da material horrek nolako lotura zuen garai hartako lengoia arkitektonikoekin.

– Balio espazio-funtzionala: erdiko gorputzean, zerbitzurako eta loturarako espazioen antolamendu orokorra mantentzen du, bai eta egiturarik gabeko espazio garbiak ere (gelak); ondorioz, berrerabilia izateko potentzial handia du.

– Hirigintzaren balioa: partzela itxia da, eraikin isolatu batekin eta espazio libre pribatuarekin. Horrek agerian uzten du dentsitate txikiko hiri-morfologia, inguruaren ezaugarri izan zena, harik eta altuera handiagoko bizitoki kolektiboak ugaritu ziren arte.

– Ingurumenaren balioa: presio turistikoaren ondorioz, hiri-paisaia eraldatu egin zen 50eko hamarkadan. Hain zuzen ere, eraikin hau garai hori baino lehenagoko eraikinen adibide bakane-takoa da.

– Osotasuna eta benetakotasuna: eraikinaren ezaugarri formal, estruktural eta tipologiko nagusiak fideltasunez kontserbatzen dira, ia ez baitute eraldaketarik izan.

3.– Deskribatutako balioak babesteko asmoz, elementu hauek izango dira babesaren xede:

– Jatorrizko eraikinaren bolumetria, estalkiko isurialdeen antolaera eta malda barne.

– Kanpoko fatxadak, elementu bereizgarri guztiak barne: konposizio-eskema (baoen kopurua eta kokapena), estaldurak, arotzeria (leihoak eta kontraleihoak, materiala, kolorea, beiraren zatikatzeta eta irekitze-sistema) eta apaingarriak, hala nola arkupea, balkoia, «garitoiak» eta pinakuluak, zokaloa, inpostak, leiho-barren jarraituak, motxetak, erlaitzak, moldurak, armarria eta inskripzioa.

– Hormigoi armatuzko egitura-sistema arkupeduna, elementu bertikalak eta horizontalak barne.

– Barrualdearen banaketa: zerbitzurako eta loturarako espazioen antolamendu orokorra erdiko gorputzean, eta espazio eta gela garbiak alboetako hegaletan, sarbide nagusia eta bigarren mailakoa, atondoa, lotura bertikalako eskailera nagusia, patioa, atikoaren solairuko etxebizitzaren banaketa eta goiko terraza.

– Kanpoko guneak: eraikuntzarik gabeko espazio libreak dira eta lorategi-izaera dute. Hor sartzan dira, era berean, hego-ekialdeko eta hego-mendebaldeko muturretako bi pergolak, partereak, hormigoizko jardinerak eta partzela ixten duten hormak.

4. artikulua.– Elementu degradatzaileak.

1.– Honako elementu hauek hartzen dira kultura-ondasunaren balio babestuen degradatzailetzat:

– Atikoko terrazan: erantsitako beirazko bolumena, hormigoizko karel itsua eta ageriko hodiak.

– Fatxadetan: itxitako baoak alboetako hegalen ekialdeko eta mendebaldeko fatxadetan, eta atxikitako instalazioak (kolektore eta zorroten berriak, kableak eta kaxak).

– Estalkian: irrati-antena.

– Lorategian: bloke-itxitura eta pergolen kanpoko arotzeria, eta mendebaldeko fatxadaren beheko solairuan dagoen eranskina.

2.– Deskribatutako elementu guztiak elementu itzulgarriak dira, eta horiek kentzeak ez luke inolako eraginik izango eraikinean.

5. artikulua.– Preskripzio orokorrak.

1.– Babestutako kultura-ondasun hau Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoaren menpe egongo da, baimen, erabilera, jarduera, defentsa, zehapen, arau-hauste eta bestelakoei dagokienez.

2.– Babestutako kultura-ondasunaren jabeak, edukitzaileak eta haren gaineko eskubide errealen gainerako titularrak behartuta daude hura kontserbatu, zaindu, babestu eta erabiltzera, hirigintzaren eta kultura-ondarearen arloan indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzetan, haren osotasuna ziurtatu dadin, eta ez dadin hura galdu, suntsitu edo hondatu.

3.– Babestutako kultura-ondasunei ematen zaizkien erabilerek eta haiek ustiatzeko aukera ematen duten administrazio-emakidek bateragarriak izan beharko dute babestu beharreko kultura-balioekin, betiere berrmatuz kontserbatu egingo direla eta balioa emango zaiela.

4.– Babestutako kultura-ondasunaren titularrek ondasunerako sarbidea berrmatu behar dute Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 32. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, informazioa eta sarbidea emanaz agintari eskudunei edo beren eskumenak egikaritzeko ardura duten funtzionarioei, eta ondasuna modu publikoan bisitatzeko eta aztertzeko aukera emanaz foru-organo eskudunak berriaz baimendutako ikertzaileei.

5.– Babestutako kultura-ondasuna osorik edo partez eraitsi ahal izateko, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 51. artikuluan xedatutakoa bete beharko da ezinbestean.

II. KAPITULUA

ESKU-HARTZE ERREGIMENA

1. ATALA

ESKU HARTZEKO ETA KONTSERBAZIO-IRIZPIDE OROKORRAK

6. artikulua.– Esku-hartzeak baimentzea.

Babestutako kultura-ondasunean edozein esku-hartze egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundian kultura-ondarearen eskumena duen organoaren baimena beharko da, dagokion hirigintza-lizentzia edo administrazio-baimena eman aurretik.

7. artikulua.– Esku hartzeko proiektua.

1.– Babestutako kultura-ondasunaren gaineko esku-hartzeek ondasun horren izaerari eta esku-hartzeari egokitutako proiektu tekniko espezifiko bat izan beharko dute, eta ondasunaren

titularrak aurkeztu beharko du proiektu hori, Gipuzkoako Foru Aldundian kultura-ondarearen arloko eskumena duen departamentuan.

2.– Edonola ere, babestutako kultura-ondasunean egin beharreko esku-hartzeen aurretik, ondasunaren azterketa historiko-arkitektonikoa egin beharko da, eta lan horiek profesional eta enpresa espezializatuen esku utzi beharko dira. Profesional eta enpresa horiek, gainera, egiaztatu beharko dute beharrezko gaitasun teknikoa dutela lanak bermerik handienekin egiteko.

8. artikulua.– Esku hartzeko irizpide orokorrak.

1.– Babestutako kultura-ondasunetan egiten diren esku-hartzeek bermatu egingo dute ondasun horien gaineko ezagutza, kontserbazioa, zaharberritzea eta birgaitzea, ondasun horiei eta inguruko ingurumen-balioei balioa emateko, betiere, multzoaren itxura eta interpretazioa hutsaldu edo degradatu gabe.

2.– Babestutako kultura-ondasunaren balio kulturalak transmititzen direla bermatzeko, oinarrizko jarduketa-printzipio hauek ezartzen dira: ezinbesteko eta gutxieneko esku-hartzea, prozeduren itzulgarritasuna, eta osotasuna eta benetakotasuna mantentzea.

3.– Babestutako kultura-ondasunen gaineko esku-hartze orotan, ondasunaren konfigurazio bolumetrikoa eta lerrokadurak mantendu beharko dira.

4.– Segurtasunaren, irisgarritasunaren, efizientzia energetikoaren, osasungarritasunaren eta bestelakoen oinarrizko baldintzak ahalik eta egokitasun handienera mugatuko dira, babestutako kultura-ondasunetan edo haien ondare-balioetan eragin negatiborik izan gabe. Horretarako, konponbide berritzaileak erabiliko dira.

5.– Esku-hartzeetan, errespetatu egingo dira ondasunean dauden garai guztietako eranskin interesgarriak, ondasunaren bilakaerari buruzko informazio esanguratsua ematen dutenak.

6.– Barnealdeko elementu babestuak, 3.3 artikuluan zehazten direnak, kanpoko ingurutzailen babes-maila berarekin tratatuko dira.

7.– Debekatuta dago babestutako ondasunaren teknika edo materialekin edo babestu beharreko balioekin bateragarriak ez diren teknikak eta materialak erabiltzea. Esku-hartzeetan erabilitako teknikak eta materialek behar bezala bermatutako portaerak eta emaitzak eman beharko dituzte; zehazki, esperientziak edo ikerketak bermatutakoak.

8.– Erabilera berrietara egokitzeko aldaketak onartu ahal izango dira, baldin eta babestutako kultura-ondasunaren ezaugarri tipologiko, formal eta estruktural nagusiak mantentzen badira.

2. ATALA

ESKU-HARTZEEN BERARIAZKO ARAUBIDEA

9. artikulua.– Onar daitezkeen esku-hartzeak.

1.– 3. artikuluan identifikatutako kultura-balioak babesteko, onargarritzat hartzen dira babestutako ondasun higiezinaren gaineko esku-hartze hauek:

– Fatxadak zaharberritzea eta aldatutako edo desagertutako zatiak jatorrizko egoerara lehengoratzeara; hala nola, itxitako baoak, arotzeriak edo beiren zatikatzeak.

– Barne-banaketa orokorrak zaharberitzea, kokapenari, neurriei eta zirkulazio-eskemei dagokienez.

– Hormigoi armatuzko jatorrizko egitura finkatzea, berreskuratu ezin diren zatiak puntualki ordezkatzuz, egitura-eskema edo elementu nagusien posizioa edo kotak aldatu gabe.

– Beharrezkoak diren instalazio teknologikoak edo higieniko-sanitarioak jartzea, baldin eta kultura-ondasuna babesteko elementuei eragiten ez badiete.

– Degradatzaileak diren, interesik ez duten, edo babestutako kultura-balioak ezkututzen dituzten edo horiekin kontraste negatiboa egiten duten estaldurak, eranskinak, obrak edo elementuak kentzea, 4. artikuluan deskribatutakoak barne.

10. artikulua.– Debekatuta dauden esku-hartzeak.

1.– Oro har, debekatuta daude babestutako kultura-ondasunean egiten diren esku-hartzeak, betiere, 3. artikuluan identifikatutako kultura-balioei kalte egiten badiete eta/edo eranskin honetako beste edozein punturen aurka badoaz. Gainera, modu espezifikoan, honako hauek ere debekatzeko dira:

– Jatorrizko eraikinaren bolumenak handitzea.

– Jatorrizko fatxadak eta haien elementu babestuak aldatzea, konposizio orokorra funtsean aldatzen badute.

– Banaketa orokorraren edo egitura-sistemaren aldaketa ez-puntualak.

– Garbiketa-tratamenduak, baldin eta atzera-bueltarik gabe aldatzen badituzte eraikinaren kanpoko akaberen testura eta osaera.

– Babestutako kultura-ondasunaren gaineko kutsadura bisual edo akustikoa eragiten duen edozein instalazio, errotulu, seinale edo jarduera, ondasunaren gaineko behaketa eragozten, zailtzen edo desitxuratzen duena eta/edo haren ondare-balioak degradatzen dituena.

2.– 4. artikuluan kultura-ondasun babestuaren degradatzaile gisa identifikatutako elementuak ezingo dira sendotze- edo berritze-jarduketan xede izan, eta kendu egin beharko dira ondasunaren gaineko esku-hartze integrala egiten denean, eskumena duen foru-organoak alde aurreko baimena emanda.

11. artikulua.– Babes-ingurunearen araubide espezifikoa.

1.– ECAYA eskola-udalekuen babes-ingurunea deklaraturako kultura-ondasunaren parte da, eta, beraz, bertan egiten den edozein esku-hartze multzoan bateratu eta integratu beharko da, inguruaren lorategi-izaera mantenduz eta babestutako kultura-ondasunaren ingurumen-balioan modu itzulezinean eragin gabe.

2.– Zehazki, esku-hartze hauek baimenduko dira:

– Irisgarritasuna hobetzea. Horretarako, ondasunaren balio kulturekin bat datozen materialak eta diseinuak erabiliko dira, elementu bereizgarriak ezkutatu gabe eta multzoaren osotasuna eta benetakotasuna mantenduz.

– Hiri-altzari txikiak, seinaleak edo argiak instalatzea.

– Ibilbideak zoladura bigunen edo hartxintzarrezkoen bidez egokitzea, landare-parterreak eta hormigoizko jardinerak errespetatuz.

– Babestutako kultura-ondasuna edo haren babes-ingurunea ikusteari, hautemateari, aztertzeari edo gozatzeari eragiten dion edozein gehigarri kentzea.

3.– Babes-ingurunean debekatuta daude eraikuntza berriak, bai eta babestutako kultura-ondasunaren kutsadura bisuala edo akustikoa eragiten duten instalazioak, errotuluak edo seinaleak, hiri-altzariak edo jarduerak ere, baldin eta, elementu horien ondorioz, eragotzi, zaildu edo desitxuratu egiten bada ondasunaren behaketa, edota haren ondare-balioak degradatzen badira.

4.– Babes-ingurunean egindako obra txikiak, betiere kultura-ondasun babestuan eragin materialik edo bisualik ez badute, Gipuzkoako Foru Aldundian kultura-ondarearen eskumena duen organoari jakinarazi beharko zaizkio, gutxienez hilabete lehenago.

12. artikulua.– Irisgarritasun unibertsaleko arrazoizko neurriak.

1.– Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 32.4 artikulua betetzeko, babestutako kultura-ondasunerako sarbidea ahalbidetuko duten neurriak aurreikusi behar dira, eta aipatutako sarbidea irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan eman beharko da. Neurri horiek, nolana ere, bateragarriak izan beharko dute babestutako balio kulturalekin.

2.– Ebro Etxea publikoa denez, dagoeneko hainbat esku-hartze egin dira bertan, oztopo arkitektonikoak kentzeko eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak hobetzeko. Kanpoko irisgarritasunerako, arrapala bat jarri zen fatxada nagusian, eta, barrualdean, igogailu bat jarri zen barneko patioan. Igogailu hori higiezinaren altuera guztietara heltzen da, eta sotoko solairuaren albo-hegaletan dauden barruko arrapalak ere lotzen ditu.

3.– Barruan oraindik ere desnibel txikiak daude; izan ere, gela batzuetan ura husteko instalazio berriak jarri dira, eta zoru goratuak dituzte. Barrualdea birgaitzeko esku-hartzeetan, betiere lan horiek konponketa txikiak edo akaberaren inguruko jarduketak baino handiagoak badira, kendu egin beharko dira desnibel horiek.

4.– Era berean, sarbide nagusiko arrapalan esku hartuz gero, ordezkoko konponbideak hartu beharko dira kokapenari, garapenari, neurriei eta babes-hesiei dagokienez, fatxadaren pertzepzioan eragin txikiagoa izan dezaten.